



## Idiazabalgo Udala

### Izena ematerakoan onartu beharreko arauak:

1.- Arrisku taldeko pertsonekin harremana duten haurrei ez apuntatzea gomendatzen zaie. Arrisku taldeak dira: diabetesa dutenak, gaixotasun kardiobaskularrak, hipertentsioa, biriketako gaixotasun kronikoa, tratamenduan dagoen minbizia, haurdun dauden emakumeak eta 60 urtetik gorakoak. Horrelakorik gertu duen haurraren gurasoak izango dira gerta daitekeenaren erantzule zuzenak.

2.- Parte hartzaileetako norbaitek COVID19 frogetan positiboa ematen badu, haur talde horren Xapolarunbatak programa bertan behera geratuko da eta haurrak etxean geratuko dira.

### Eguneroko zerbitzuaren aurretik etxean bete beharreko urratsak:

1.- Haurrak edota senide batek COVID-19arekin loturiko sintomarik aurkezten badu ez da zerbitzura joango eta zerbitzuko begirale edo arduradunarekin harremanetan jarriko da egoeraren berri emateko.

2.- Haurrak zerbitzura beraien musukoarekin etorri beharko dira eta 2 metroko distantzia bermatu ezin diren ekintzetan musukoa erabili beharko dute.

3.- Haur guztiek etxetik tenperatura hartuta eta eskuak garbituta etorri beharko dira. Begiraleak ekintza hasi aurretik haurrari tenperatura hartuko dio eta ondo badago guraso/tutoreari haurra bertan uzteko baimena emango dio. Sukarra ematen badu haurra etxera itzuliko da bere arduradunarekin.

4.- Haurrak jaso eta uzteko lekuetan 2 metroko distantzia mantendu beharko da gainontzeko guraso/tutore eta hurrekiko.

5.- Guraso/tutore legalak telefono zenbaki bat eman beharko du eta lokalizagarri egon beharko da edozein ezusteko gertatuz gero.



### Eguneroko zerbitzuak iraun bitartean:

1.- Begiraleek osasun zainketa ohitura batzuk beteko dituzte. Egunaren hasieran tenperatura hartu, haurrak musukoa duen bermatu eta hurrekin eskuak garbituko dituzte. Eskuak zerbitzuaren hasieran eta amaieran garbituko dira, baita ere hezitzaileak beharrezkoa ikusten duen bakoitzean; eta ekintzetan, distantziak ahalik eta gehien mantentzen saiatuko dira.

2.- Haur guztiek izango dute beti eskura, gela, papera, jaboi desinfektantea eta ura eskuak garbitzeko.

3.- Kontaktu fisiko handia duten ekintzak saihestuko dira.

4.- Topalekutan babes neurrien inguruko kartelak eta mezuak itsatsiko dira.

5.- Ekintzak aire librean izango dira ahal den neurrian, arrisku gutxiago dauden lekuetan

6.- Taldeak ez dira beste talde batzuekin elkartuko. Talde bakoitzak bere zirkuito propioa izango du.

7.- Haur batek ekintzak iraun bitartean COVID-19aren sintomak (eztula, sukarra, arnas hartzeko zailtasunak...) ematen baditu, bere guraso/tutoreari jakinaraziko zaio, taldearengandik urrunduko da eta musukoa bat jarriko zaio. Gero, familiak osasun zentrorera eraman beharko du haurra eta osasun zerbitzuak dagokion jarraipena egingo du.

8.- Haurrak ezingo du ekintzan parte hartu 14 egunez, COVID-19arekin gaixorik dagoen norbaitekin egon bada, nahiz eta sintomarik ez azaldu. 14 egun horietan jarraipena egin beharko zaio gaixotasun zantzurik agertzen bada.

9.- Egunen batean haurra ez bada zerbitzura joaten guraso/tutoreak arrazoia jakinarazi beharko dio begiraleari.

**Idiazabalen 2020ko, urriaren 16ean.**